

**EUSKAL DIASPORAREN EGUNA**
DÍA DE LA DIÁSPORA VASCA

2024-09-08 Oñati 08-09-2024

Lehendakariaren hitzaldia – Discurso del Lehendakari

Alkatea, herri agintari eta ordezkariok, kanpoan zaudeten euskaldun guztiok, jaun-
andreak, egun on!

Euskal Diasporaren Nazioarteko Egunaren zazpigarren edizioa ospatzen dugu gaur.
Jai berezia euskaldunontzat. Esanahiz beterikoa.

Prozesu parte-hartzaile baten ondorioz sortu zen, diasporatik proposatutako ideia bati
erantzunez.

Eta horrek garrantzi handia du guretzat. Diasporak bere herriarekin duen inplikazioaren
beste adierazle garbi bat delako. Harrotasunez betetzen gaitu.

15 herrialde ezberdinetan 100 ekitaldi baino gehiago antolatu dira gaur. Horrek esan
nahi du egun hau euskal diasporan errotzen ari dela.

Argentinan, Uruguayan, Venezuelan, Kanadan, Alemanian, Belgikan, Australian...
besteak beste. Zorionak, bene-benetan!

Pozik egoteko eguna dugu gaurkoa. Izan ere, duela 50 urte azaldu zen hemen, Oñatin,
90 lagunez osatutako talde bat. **Pat Bieter** irakasle boisetarrak bultzatutako
euskaldunen talde bat.

Helburua aberrira etortzea zen. Kulturaz gozatzera, euskara ikastera. Eta hala egin
zuten.

Bueltan, ikasitako guztia Ameriketara eramán eta euskal haziak han erein zituzten beste
behin ere. Hazi berrituak ziren. Eta sustraiak ondo errotu ziren.

You opened a path 50 years ago. Today international mobility has changed and thanks
to your adventure many more exchanges have taken place over the years.
Thank you for being brave at that moment. Thank you for spreading the Basque seed
every day.

Onartzen dut Oñatin bizitako gertakariak bezalakoek erabat hunkitzen nautela.
Aberriarekin gehiago lotzen gaituzte.

MiguelMariren istorioak bezala. Duela 26 urte ezagutu nuen.

MiguelMari Baztango semea zen. 4 anai-arreben artetik txikiena.

1940ko hamarkadan ez zuen aukera gehiegi bere inguruan. Anaia nagusienak etxea hartuko zuen eta berak, azkena izanik, beste irtenbide batzuen bila hasi beharko zuen.

Eta, esan bezala, ez zegoen aukeratzeko gehiegi bere haranean. Hobeto esanda, ez zegoen deus ere, berak onartu bezala.

Halako batean Mexikora urte batzuk lehenago joandako osaba baten mezua jaso zuen. Hala zioen: “hemen bada lana. Etorri zaitetz”.

Une horretan bertan, bere barrenean zerbait sentitu zuen. Urduritasuna, ezinegona... bertigoa. Buruak baietz esaten zion. Bihotzak ezetz.

Zentzuzkoena ateratzea zen. Zentzuzkoena, eta aukera bakarra.

23 urte baino ez zituen.

Nik bere historia entzun nuen egunean nituen berberak, 23 urte besterik ez..., eta Irlandara doktoretza ikasketak egiteko bidea hartu nuen...

Urtebete eskas eman nuen nik Irlandan.

Eta Irlandatik Euskadirako buelta oraindik ere gogoan dut... ¡zer nolako harrera etxean! Baina MiguelMariren errealitatea erabat ezberdina zen. Berak joan egin behar izan zuen, eta bizitza berri bat eraiki atzerrian.

Bai, askotan pentsatzen dut egoera hori bizi izan banu, ze ezberdina izango litzatekeen nire bizitza...

MiguelMariren istoria izan zen euskal diasporarekin izan nuen lehen kontaktua. Herri migratzailea ere bagarela garbi ikusi nuen.

Gogorra egin zitzaidan bere bizitza-esperientzia, nahiz eta MiguelMarik irribarre batekin kontatzen zidan gutia.

Bizi guztia eman zuen han. Lan gogorra aurrera eramanez. Familia bertan osatu eta bizpahiru udatik behin etortzen zen gurera. Nahi baino gutxiago.

“Zein ezberdina batzuen eta besteen bizitza”... pentsatu nuen. Diferentzia bakarra da garai batean edo bestean jaiotzea.

MiguelMarik bere seme-alabei euskara eta euskal kultura transmititu zien.

Nahi gabe, Baztango semea gure enbaxadore bilakatu zen, beste milaka eta milaka euskaldun bezala. Han eta hemen. Munduko bazter guztietan.

Beraien ekarpenari esker gure hizkuntza eta kultura nazioarteko dimentsio berri batera eramán ditugu elkarrekin.

Eta orain, aldaketa garai honetan, elkarrekin ere irudikatu behar dugu gure arteko harreman berria, diaspora berriarekin harremana, alegia.

Lo dije en el Pleno de Investidura y hoy vuelvo a repetirlo: creo que nuestro País se juega muchísimo en el contexto internacional estos próximos años.

Nos encontramos ante una intersección y debemos elegir camino.

Debemos tejer nuevas redes y conectar con nodos que nos aporten valor. Valor humano, cultural, económico, científico, industrial...

Una estrategia global e internacional para que las y los vascos volvamos a surcar los nuevos mares y mundos en busca de prosperidad para nuestro País.

Hablo de una Euskadi Global.

La diáspora conforma la base de la Red Vasca Global. Y Euskadi os necesita para abordar los grandes retos en los que nos jugamos nuestra identidad, bienestar y crecimiento en el siglo XXI.

Para lograr estos objetivos es fundamental el papel de la diáspora vasca y de las personas que la componéis porque, al igual que ayer, hoy también seguís siendo las y los mejores embajadores que podamos tener.

Debemos aprovechar este capital humano, empoderarlo y darle las herramientas necesarias. Porque su aportación, vuestra aportación, será fundamental en el desarrollo futuro de Euskadi.

Pero la diáspora vasca no es una foto fija. Cada año cientos de vascas y vascos salen al extranjero después de haber sido formados en nuestro País.

Les motivan diferentes razones para hacerlo: una nueva experiencia, completar sus estudios o labrarse un mejor futuro.